

Two typical irish guys in a tavern

Asier Osinalde Vidal

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2012



Zumaiko Udala

*enskar
txanpa*



Two typical irish guys in a tavern

Asier Osinalde Vidal

Julene Azpeitia 25. ipuin lehiaketa

2012

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko azaroan.

© Asier Osinalde Vidal (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Gorroto ditu taberna ingelesak. Gorroto ditu garagardoa, whiskia eta enparauak. Gorroto ditu mozkortiak. Gorroto ditu euria, lainoa eta lokatza. Ez du mahai horren aurrean eserita egon nahi, baina han dago, ukilu kiratsa darion lokal horren txoko batean ekaitza noiz baretuko zain, etxera eramango duen itsasontziaren deiaren zain, baso esne bero baten zain. Hotzak hozka egiten dio hezurretan. Aurpegia betetzen dion bizar gorriaren muturretik, ur-tantak irristatzen zaizkio bata bestearen atzetik, ezari-ezarian, etenik gabe. Erreduraz orbandutako aurpegiaren erdian, bi begi urdin eta lauso daude; bi begi, triste eta higatu.

Hatzen puntetatik tira eginda, eskularruak kendu ditu: mela-mela eginda daude. Une batez, eskuei begira geratu da: zimurrek artekatuak ditu. Bata bestearen aurka igurtziz saiatu da gorputza bahitzen dioten dardarizoak menperatzen, zimurak ezabatzen. Eta hatsa bota die. Eta berriz igurtzi ditu. Eta hatsa bota die. Eta zabaldu eta itxi egin ditu.

Klonk!

Esku batek mahai gainean utzi du esnea, bortitz, eta egurrezko gainazal zikina ziprirtinez bete da. Albertek (nahiz eta bere izenak inolako garrantzirik ez izan) ez du bitan pentsatu, eta hatz mamiak eraman ditu esne putzuetara. Garagardo lehortua, hautsa, azkazalak, hotza eta beroa nahastu egin dira. Handik gutxira hobeto sentitu da, eta dardarizoak apur bat lasaitu zaizkio. Bi eskuez edalontziari heldu, eta ahora gerturatu du, kontu handiz. Sabaira bidean ihes egiten duen keak muxuak berotu dizkio. Edan egin nahi du. Ezpainak esnearen gainazalera eraman ditu. Edatera doa. Murgildu ditu azkenik, baina beroegi dago, eta ezpainak sutan kiribildu zaizkio, bi zizare arrosaren moduan. Orro egin du.

—Kanker!

Muxua blai egindako jaka arrailduaren mahukarekin igurtzi du, bizi, erredura apaldu arte. Mina pixka bat itzali zaionean, burua jaso du, eta ingurura begiratu. Ez luke han egon behar.

Lau mahai daude. Laurak egurrezkoak. Laurak gizonkote banaren beso artean harrapatuak. Laurak mozkor banaren burupean buruki bihurtuak. Laurak herrenak. Mozkorretako batek oihu egin du, eta Giullianok (bere izenak ere ez du inolako garrantzirik) hari zuzendu dio begirada. Tabako kearen errezelaren atzean, txapela kentzen ari den morroi ilegorri bat ikusi du, eta haren aurrean, esnez betetako edalontzi bat. Ingurura begiratu du, beste behin. Ez du bere bakardadea beste inorenarekin partekatzeko gogorik. Buelta erdi eman, eta kalera egin du. Baina kalean ez da giro. Zerua errauts laino amaigabe batek estaltzen du. Kotoi grisezko harresia zeharkatzea lortzen duten argi izpi apurrak ahul erortzen dira arbelezko teilatuen gainean, eta teilek ez dute diz-diz egiten. Errautsak iragazitako ur pozoituak behera egiten du herdoilak jandako tutuetan barna. Ondoren, estoldetan bultzaka sartu, eta hauek, itobeharrean, gainezka egiten dute. Eta Liverpooleko portuko zorua lokatz bihurtzen da. Eta putzuak laku. Eta kalea arratoi jostaleku.

Ingalaterran euria ari du, etenik gabe, eta bera akituta dago. Larru beltzezko maletari gogor heldu, eta tabernara sartu da berriz. Oraingoan ez du ingurura begiratu, eta zuzenean abiatu da ilegorria dagoen mahaira.

—Hello —bota dio azentu italiarra ezkutuan gordetzen saiatuz.

Baina esnez betetako edalontziaren aurrean dagoen gizonak ez du zirkinik egin. Begirada barrako izkinaren batean du iltzatua. Giullianok larruzko maleta lurrean utzi, gabardina erantzi, kapela kendu eta bizargorriaren ondoan eseri da barrara begira.

Ez luke han egon behar.

Higuina ematen diote mozkorrek eta euren kantu lizunek. Higuina euren aho ustelek eta arropen kiratsak. Higuina lurrera ziplo erori ez eta edaten jarraitzeko erabiltzen dituzten trikimailuek. Hor daude bi lagun bere begien aurrean, bertikalari ezin eutsi. Halako batean hirugarren bat batu zaie. A/e pinta bat eskatu, eta tabernariak ekarri bitartean, prakei eusten dien gerrikoa askatu, belarria barraren azpitik irteten den kirten uger batean sartu, eta han ainguratu da, txalupa gehiegi mugitzen hasten denean garagardo olatuek eraman ez dezaten. Tabernariak muturraren aurrean utzi dio pinta zikina, eta ondoren, pare bat pauso atzera egin eta edalontzi bat garbitzeari ekin dio, noizbait zuria izan zen mantalaren mutur garbienarekin. Beira merkea igurzten duen bitartean, ez du begirada lurretik altxatzen. Higuingarria da tipoa. Alkandoraren mahukak eta lepoa horiztatuak ditu erabat. Alkandora ezkututzen duen txaleko gris eta arraildua pipiak janda dago. Alkandoran gora abiatzen den lepo ihartua espresiorik gabeko aurpegi ximel batean itsasoratzen da, eta gaixo aurpegiaren gaina, buruaren tontorra, albo batera orraztutako lau ile koipetsuk koroatzen dute. Guztiz higatua dago. Ezinezkoa litzateke haren adina asmatzea. Badu, ordea, barrak ezkututzen ez duen gorputz atalen artean bizi eta harro ageri den bibotetxo motz bat, sudur txiki baten azpian hain zuzen. Albertek oraindik ez ezagutu arren, tabernaria Adolf Hitlerren biki higatua da. Eta oraingoz, Führerra barran ainguratutako mozkortien eta haren gibela babesten duten hautsez betetako botilen arteko lubakian harrapatuta dago.

Botilen gainean, baina, tabernan erabat lekuz kanpo ageri den beste objektu bat dago: ispilua. Zartatua, hamaika arrakalek zeharkatzen dute alderik alde, zangek lur idor bat nola. Ez du ulertzen zergatik dagoen ispilu bat halako ukuilu baten erdian; agian, tabernaren tamaina handitzeko asmoz jarriko zuten bertan. Hala ere, argi dago ez duela bere funtzioa betetzen. Horren ordez, mozkor koadrilaren izanaren kondarrak islatzen ditu, baina haietako inork ez dio jaramonik egiten, eta egingo baliote ere, ez lukete euren burua antzemango.

Ispiluaren beste aldean, higuina ikusi du bere aurpegian marraztuta; nazka, bizar eta ile bustiaren azpian; tipo gazte, argal eta beltzaran bat, bere ondoan eserita. Zeharka begiratu dio: piano-jotzaile baten eskuak ditu, alkandora eta txaleko dotoreak, zilarrezko ordulari dirdiratsu bat txalekoaren aurreko poltsikoan eta lurrin garestiz ezkutatutako usain gozoa. Higuina ematen diote horrelakoek, lana zer den ez dakiten horiek. Gaztearen esku leunei begiratu die berriro ere, eta whiskiz betetako edalontzi txiki bat ikusi du euren artean. "Whiskizalea, gainera", pentsatu du begirada baso esnera eramaten duen bitartean. Esnerari trago bat kendu, eta aurrera begiratu du.

Ez luke han egon behar.

Edalontzitxoa mahai gainean utzi du. Pena ematen dio Ingalaterrako tabernetan zerbitzatzen duten whiskiak. Tristatu egiten du lurralde honetako kolore zuri-beltzak. Negargurak inbaditzen du herrialde horretako janzkera monokromoari erreparatzen dionean.

Penak bete zion, bai, barrena, Manchesterreko tailertxoko bi aprendizetatik traketsena kaleratu behar izan zuenean. Nahigabeak ito zion gogoa, bi aste beranduago bigarrenarekin gauza bera egin behar izan zuenean. Eta abaildu egin zen, berak diseinatutako jantziak merkeegi saldu eta jostundegia itxi behar izan zuenean.

Baina orain taberna madarikatu honetan dago, gelditzen zaizkion ehunezko amets apurrak maleta batean gordetik, itsasontziaren deiaren zain. Hutsa du barrena, ilun, kolorerik gabe. Badaki Florentziara iristen denean, aitaren zapata dendan hasi beharko duela lanean, eta horrek gogaitu egiten du. Hala ere, badu esperantza txiki bat, eta jakin badaki ez duela amore emango, eta lan egingo du, gogor, eta pixkana-pixkana bere ametsa egia bihurtzeko indarrak batzen hasiko da, ziur. Bai, egunen batean, pertsona bakoitzaren izaera islatzen duen jantziak josiko ditu, eta orduan, bezeroz beteko zaio zapata dendaren atzealdea, eta orduan, arropa denda bat zabalduko du *Via dei Calzaiuoli* kalean, eta orduan, pertsona baten janzkerari erreparatuz gero, bere barrua ikusiko dute, eta orduan, itxurakeriak zentzua galduko du, eta alfonbra gorri batekin emango diote ongietorria Ingalaterran.

Baina orain ostikada eder batekin bidaliko dute etxera, zuri-beltzean. Bizargorriari zeharka begiratu dio: nekazari baten eskuak ditu; alkandora zuri eta soil bat soinean; bizarrak basati ihes egiten dio aurpegiko azal erretik; basurde kiratsa dario; eta ahoaren inguruan lehortutako esneak mendilerro txiki eta horizontalak marrazten dizkio. "Zertan ari ote da abstemio ekilibrista hau taberna zulo honetan?". Whiskia ahora gerturatu, eta beste trago bat kendu dio.

Ez luke han egon behar.

Ez du gustuko inor begira izatea. Ez du gustuko ezezagunekin hitz egitea. Ez du gustuko bi gauza horien konbinazioak sortzen dion bihotzerrea. Nekatuta dago. Bakarrik egon nahi du. Isolaturik miazkatu nahi ditu azken atsekabeek sortutako zauriak.

Aulkitik eskegita duen zakutoari begiratu dio. Hor barruan dago azken sei hilabeteetan lortu duen guztia: *Shipbuilding & Iron Company* fabrikako alkandora eta prakak, fundizioan lan egiteko erabili dituen kristal iluneko betaurrekoak, zuloz betetako galtzerdi pareak, *Golden Virginia* tabako paketea, pospolo-kaxa hezea eta larru gorriko kartera. Diru-zorrotik aitonak oparitutako zilarrezko txanpona atera du, geratzen zaion txanpon bakarra. Eskuan hartu, eta hatz batetik bestera igaroz jolasten hasi da. Hori egiten du urduri dagoenean. Hori egiten du penak barrua jaten dionean. Hori egiten du itxoin behar duenean.

Zilarrezko txanpon hori da geratzen zaion azkenekoa; beste guztiak Jarrovetik Liverpoolera daraman bidean utzi ditu. Hirurehun kilometro eta hiru egun nahikoa izan dira, sei hilabeteen altzairua urtzeko labearen aurrean izerditutakoak galtzeko. Eta orain aitarenera egin behar du, Amsterdamera, berriz. Eta aitari azalpenak eman beharko dizkio: "Ipar-ekialdeko fabrikak ixten ari dira, eta egunero ehunka lagun kaleratzen dituzte". Eta aitak mutu erantzungo dio, irri zoli batekin: "Esan nian, bada, han ez huela ezer onik topatuko". Eta Albertek ezкусиarena egingo du. Eta hurrengo goizean oilarrak kantatu baino lehen jaikiko da. Eta burumakur, sardea hartu, eta ukuilura joango da, behiei bazka ematera.

Txanpona hatzen artetik irristatu, lurrera erori, eta salto eta buelta hasi da bizargorriaren albotik urrutiratzen.

Argazkilari alemaniar bat kalea gurutzatzen ari da, saltoka, matxinsalto gris baten moduan. Inor ez da kalean ageri, eta beraz, bere botek putzuetako ura zapaltzean egindako plisti-plasta ez du inork entzuten, arratoiek besterik. Modu traketsean saiitzen da putzuak saihesten; izan ere, zerbait darama bi eskuez heldurik, gabardinapean, eta horri eskaintzen dio duen atentzio guztia.

Azkenik iritsi da kalearen bestaldera, eta tabernako atarian hartu du babesa. Han, kontu handiz, gabardina zabaldu, eta eskuen artean duen larruzko poltsari begiratu dio. Larrua hezea dago: "Ez ote da, bada, izorratu". Larriturik askatu du zorroa ixten duen botoia, eta orduan ikusi ahal izan du *Leica I* kamera, *A modelo* hain zuzen. Tentuz atera du poltsatik. Osorik dago; heze samar, baina osorik. Kamera ezker eskuaz oratu, eta eskuinaz magnesio hautsa bilatu du: bustita dago. Baina gutxi gelditzen zaio, eta diru-galera ez da handiegia izango. Ondoren, negatiboak bistaratu ditu: umelak, beste guztiaren antzera. Banan bana eta kontu handiz atera ditu zorrotik. Airean pixka bat astindu, eta argiaren kontra jarri ditu. Zorte ona izan du: ez dago herdoiltzen hasitako argazkirik. Ingalaterran ateratako argazki gehienak onik daudela iruditu zaio. Azkenik, eskuak beste zerbait bilatu du, eta baita aurkitu ere. Poltsaren hondotik, Manchesterren erositako azken tramankulua atera du: lanpara bidezko flasha. Hezea dago, eta zirrara batek gorputza astindu dio; izan ere, garesti ordaindu du gailu berria, eta gainera, ez du garbi ikusten horrek behar bezala funtzionatuko ote duen, saltzaileak kontrakoa behin eta berriz errepikatu arren. Une batez, mesfidati begiratu dio. Ondoren, kemen olatu batek bete dio barrena, eta egoeraren alderdi positiboa ikusi du: "Orain da tramankulu hau probatzeko unea, eta horixe egingo dut". Egurrezko zoru bustiaren gainean, gabardina zabaldu, gainean eseri, eta tramankulu berria kamerarekin lotzen hasi da.

Ez luke han egon behar.

Lurretik jaso, eta Albert txanpona eskuan gorderik itzuli da mahaira. Lotsaturik eseri da aulkian, begiak lurretik bildu gabe. Muxuek kolore gorri bizia galdu dutenean ausartu da eskua zabaldu eta txanpona begiratzea. Ez du diz-diz egiten. Ukuluko zoruak estali dio zuen dirdira lotsagabea. Une batez, aitona zenaren hutsa nabaritu du urdailean. Ezin dio gehiago eutsi. Zulo horretatik alde egin beharra dauka. Alkandoraren mahukaz, txanpona igurtzi, eta zakutoaren poltsiko txikian sartu du.

Whiskiari trago bat kendu, eta Giullianok orrazi txiki bat atera du txaleko beltz eta dotoretik. Mugimendu bera behin eta berriz egiteak dakarren trebeziarekin saiatu da kaskezurra betetzen dion ile mataza iluna txukuntzen. Urduri dagoenean, beti egiten du gauza bera, nerbioak lasaituko zaizkiolakoan edo. Izan ere, orratzek kilimak egiten dizkiote buru-azalean, eta horiek Florentziako emakumeen laztanak ekartzen gogora. Bitartean, begirada mahai batetik bestera eraman du, eta hirurak bata bestearen argazkiak iruditu zaizkio: mahai bakoitzean eite bereko tipo bat dago, antzeko janzkera zarpailarekin, antzeko bizar zikinarekin, antzeko lo, zurrunga eta amets mozkorrekin.

Begirada bildu, eta orrazia txalekoaren poltsikora itzuli du. Alde egin nahi du. Ezin dio gehiago eutsi. Zulo horretatik atera beharra dauka. Edalontzia jaso eta ahora gerturatu du, azken tragoa kentzeko prest. Begiaren ertzaz alboko tipo bizargorriari begiratu dio. Edaten ari da, itobeharrean. Esnea ahoaren ertzetatik behera irristatzen zaio, bizar gorrian sakabanatutako esne lehorrarekin batuaz. Higuinak zainak goitik behera zeharkatu dizkio, eta hotzikara batek, bizkarrezurra. Muturra whiskian murgildu, eta nazka irensten saiatu da, bizargorriari begirik kendu gabe. Baina une horretantxe, Alberten begi urdin nekatuak hari begira daudela ohartu da, eta bitan pentsatu gabe, edalontzia ahotik aldendu, begien parean ipini, eta airean gora altxatu du, bizargorria gauza bera egitera gonbidatuz. Albertek, zalantza labur baten ondoren, gauza bera egin du. Eta azkenean, topa egin dute. Eta begietara so egin diote elkarri. Eta begiradek talka egin dute. Eta kolore zuriko txinparta batek jauzi egin du.

Flash.

Argi zuriak inguru guztia erre du, baita Alberten eta Giullianoren begiak ere. Eta izoztuta gelditu dira. Betiko. Elkarrekin. Nahiz eta nork bere edalontzia hustu bezain laster, nork bere bidea hartu duen. Nahiz eta handik gutxira, Führerrak Europa bitan bananduko duen. Nahiz eta hil ziren egunera arte, berriz elkar ez ikusi. Elkarren ondoan egotera kondenatuak daude. Betiko. Eta Ibarreko Irish tabernatik igarotzen den orok han ikusi ahal izango ditu, urre kolorez margotutako zurezko marko baten barruan harrapatutik, "Two typical Irish guys in a tavern (Belfast, 1931)" dioen oinaren gainean izozturik, Stefan Müller dion sinaduraren azpian betiko elkarturik.

Baina ez lukete han egon behar.